

**975. ZENBAKIDUN**  
**ALKATETZAREN DEKRETUA**

**Xedea**

Berogailuetarako C motako gasolioaren hornidura esleitzea esparru-akordioaren prozedura bidez.

**Aurekariak**

Lehenengoa: 2017ko otsailaren 23ko Osoko Bilkurak Bizkaiko Foru Aldundiko kontratazino zentralera atxikitzea eta jagokon hitzarmena sinatzea erabagi eban.

Bigarrena: Bizkaiko Foru Aldundiko kontratazino zentralak idaztia aurkeztu dau berogailuetarako C motako gasolioaren horniduraren esleipenerako udalaren atxikipena jakinarazteko.

**Argudioak**

Lehenengoa: Bizkaiko Foru Aldundiko kontratazino zentralaren sorrerea eta osaketea arautzen dauzan, uztailaren 20ko, Bizkaiko Foru Aldundiaren 125/2016 FORU DEKRETUA daukagu.

Foru Dekretuan bertan, aurrekari eta azalpen legez, jasota dagoz sorrerearen justifikazinoa eta nondik norakoak, bereziki aitatuta agertzen dira:

Kontratazino publikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24 Direktibearen 2. artikuluko 1.16 zenbakia.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen dauen 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 204.2, 203. eta 205. artikulua.

Bigarrena: 125/2006 Foru Dekretuan kontratazino publikoa zentralizatzearen abantaiak honela zehaztuta eta deskribatuta dagoz:

- *Kostuak murriztea ondasunak eskuratzerakoan zein obra eta zerbitzuak kontratatzerakoan. Kontratazio-bolumenak aukera ematen die hornitzaileei prezio lehiakorragoak eskaintzeko, eta prezio horrek mesede egingo die hitzarmenari atxikitako erakunde gutzietei.*
- *Gardentasun eta segurtasun handiagoa izatea kontratazio publikoan.*
- *Burokrazia administratiboa gutxitzea, Kontratazio Zentrala arduratzen baita izapidetzean laguntzeaz. Denbora nabarmen aurrezten da horrela, eta, gainera, gutxitu egiten dira inplikaturako administrazioen barruko kostuak.*
- *Enpresaburuek baliabide telematikoak, elektronikoak eta informatikoak sustatzea (horrela, sinadura elektronikoa erabiltzea eta dokumentazioa telematikoki aurkeztea bultzatzen da).*



- *Kostu administratiboak murriztea enpresentzat: Prozesu bakarraren bidez erakunde gehiagorako sarbidea izango dute, eta horrek aurrezki nabarmena ekarriko du enpresentzat; gainera, ETEen irisgarritasuna hobetuko da, prozesua erraztu egingo da eta.*
- *Hornitzaileek eskainitako zerbitzuaren kalitatea, maila eta trazabilitatea hobetzen da, eta, hala, hobetu egiten da zerbitzua gauzatzeko baldintzak negoziatzeko ahalmena.*
- *Sinpletasuna. Kontratazio Zentrala martxan jartzen denean, erraz erabiltzeko moduko tresna izango da denentzat, eta, hala, kontratazioak berehala egin ahal izango dira.*

Hirugarrena: Bizkaiko Foru Aldundiko Kontratazio Zentralaren helburua kontrataziorako laguntza-organoa izatea da, besteak beste, udalen eta euren menpeko organismoen laguntza-organoa.

Laugarrena: Laguntza lortzeko edo eukiteko era Bizkaiko Foru Aldundiko Kontratazio Zentralera atxikitzea da, horretarako udalek erabagia hartuta eta jagokon hitzarmena sinatuta.

## Erabagia

Goian aitaturako guztia kontutan hartuta, honako hau erabagi dot:

BAKARRA: Berogailuetarako C motako gasolioaren hornidura esleitzea esparru-akordioaren prozedura bidez.

Bermeon, 2017ko uztailaren 19an

ALKATEA

NIRE AURREAN  
BEHIN-BEHINEKO  
IDAZKARIA

